

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

4375

EBAZPENA, 2017ko abuztuaren 25ekoa, Lurralde Plangintzaren sailburuordearena, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko maiatzaren 31ko Aginduan ezarritako laguntzen deialdia ebatzi eta argitara ematen duena. Agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia.

2017ko ekainaren 14ko EHAAn (112. zk.) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko maiatzaren 31ko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez ezartzen baitira paisaiaren ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia.

Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 14an amaitu zen, aipatutako aginduaren 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrela, bada, 12 eskaera egin dira; dena dela, eskaeretako batean (Basauriko Udalak bikoiztuta aurkeztua) onartu egin da atzera egitea. Hona hemen gainerako 11 eskaerak:

	Udala	Proiektuaren titulua	Aurrekontua BEZik gabe
1	Kanpezu	Paisaiaren ekintza-plana, Santikurutze Kanpezuko kontzejuaren herrigunea eta industria-ingurunea berreskuratzeko	29.200,00 €
2	Bastida	«Toloñoako ateak», hiri-landa trantsizioa Bastida eta Peñacerrada-Urizaharra	16.900,00 €
3	Galdames	Paisaiaren ekintza-plana, Galdamesko mendiak	26.000,00 €
4	Basauri	Paisaiaren ekintza-plana, Basconiaren paisaia kultural industrialak	26.000,00 €
5	Karrantza	Paisaiaren ekintza-plana, erreka nagusiari lotua, Karrantza Haraneko herriguneak lotzeko ardatz gisa hartuta	23.900,00 €
6	Arrigorriaga	Paisaiaren ekintza-plana, Arrigorriagako hegoaldeko industria-ardatzarena	26.000,00 €
7	Zamudio	Zamudioko paisaiaren ekintza-plana	33.000,00 €
8	Bermeo	Paisaiaren ekintza-plana, Bermeoko itsasertzeko Tonpoiaren eremuarena	33.980,00 €
9	Leioa	Paisaiaren ekintza-plana, Lamiakoko Dartsenaren ingurunearena, Leioan	27.700,00 €
10	Pasaia	Paisaiaren ekintza-plana, Poblado-Salinas-Andonaegi bizitegi-guneena	38.000,00 €
11	Oñati	Aratzeko eta Arantzazuko bailarako paisaiaren ekintza-plana, Oñatin	26.500,00 €

Diru-laguntza hauek arautzen dituen 2017ko maiatzaren 31ko Agindu horretako 9.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, uztailaren 20an horretarako balorazio-epaimahaia eratu zen, hartutako eskaerak aztertu eta egiaztatzeko xedez, kontuan hartuta artikuluko horretako 2. atalean xedatutakoa, hau da, esleipenerako irizpideak eta gehieneko puntuazioa.

2017ko maiatzaren 31ko Agindu horren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, guztira 300.000 euro bideratuko dira diru-laguntzak emateko. Bestalde, 15. artikuluko zehazten du diruz lagunduko dela paisaiarako ekintza-planak idazteko ordainsarien % 90, plan bakoitzerako

30.000 euroko gehieneko muga jarrita, aurrekontuko kreditua amaitu arte, eta ezin izango direla diruz lagundu ez BEZa ez bestelako zergak.

Epaimahaiak, proposamenak aztertu eta egiaztatu ostean, 2017ko abuztuaren 23an, 9.3 artikuluan xedatutakoari erreparatuta, sailburuordeari aurkeztu zion esleipenerako proposamena, non adierazten duen zein den diruz laguntzeko diren eskabideen lehentasuna, kontuan hartuta I. eranskinean adierazitako puntuazioa, barnean hartuta zein udal edo kontzeju den onuraduna, zein den diruz lagun daitekeen proiektua eta zenbatean laguntzea proposatu den.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2017ko maiatzaren 31ko Aginduaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat (agindu horren bidez ezartzen dira paisaiaren ekintza-planak prestatzeko oinarri arautzaileak eta iragartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko udalantzako eta Arabako udalerrien kontzejuentzako diru-laguntzak emateko deialdia), eta horretarako eratutako balorazio-epaimahaiak proposatutakoa ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Paisaiaren ekintza-planak idazteko diru-laguntzak ematea ondoren zerrendatutako udalei eta kontzejuei, adierazitako zenbatekoekin:

	Udala	Proiektuaren titulua	Puntuak	Proposatutako zenbatekoa
1	Pasaia	Paisaiaren ekintza-plana, Poblado-Salinas-Andonaegi bizitegi-guneena	8	30.000,00 €
2	Zamudio	Zamundioko paisaiaren ekintza-plana	7,5	29.700,00 €
3	Basauri	Paisaiaren ekintza-plana, Basconiaren paisaia kulturala	7,5	23.400,00 €
4	Bastida	«Toloñoko atea», hiri-landa trantsizioa Bastida eta Peñacerrada-Urizaharra	6,5	15.210,00 €
5	Galdames	Paisaiaren ekintza-plana, Galdamesko mendiak	6,5	23.400,00 €
6	Leioa	Paisaiaren ekintza-plana, Lamiakoko Dartsenaren ingurunearena, Leioan	6,25	24.930,00 €
7	Oñati	Aratzeko eta Arantzazuko bailarako paisaiaren ekintza-plana, Oñatin	6,25	23.850,00 €
8	Kanpezu	Paisaiaren ekintza-plana, Santikurutze Kanpezuko kontzejuaren herrigunea eta industria-ingurunea berreskuratzeko	6	26.280,00 €
9	Arrigorriaga	Paisaiaren ekintza-plana, Arrigorriagako hegoaldeko industria-ardatzarena	6	23.400,00 €
10	Bermeo	Paisaiaren ekintza-plana, Bermeoko itsasertzeko Tonpoiaren eremuarena	5,25	30.000,00 €
11	Karrantza	Paisaiaren ekintza-plana, erreka nagusiari lotua, Karrantza Haraneko herriguneak lotzeko ardatz gisa hartuta	5	21.510,00 €

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eskatzaile guztiei jakinarazteko ondorioetarako.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 25a.

Lurralde Plangintzaren sailburuordea,

MARIA ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.